

# MANIFESTUA

## HORNIDURAK ETETEA EPE MUGAGABEZ DEBEKATU

Estatuko etxe guztietan hornidurak eteteko debekua ez luzatzea adostu du Gobernu zentralak. Ondorio arras kaltegarriak ekar ditzake erabaki horrek. Joan den irailaren 29ko Ministroen Kontseiluaren ostean, "ezkutu soziala" delakoaren luzapena iragarri zen, COVID-19ren krisiari aurre egiteko ezohiko neurriak, alegia, baina energia eta ur hornikuntzaren bermea kanpoan utzita. Neurri hori inoiz baino beharrezkoagoa da orain, pandemia betean. Konpainiak hornidurak mozten has daitezke; horrek pertsona guztiei eragiten die ohiko etxebizitzan, eta milaka familia eta biztanlerik prekarioenak (migratzaileak, emakumeak, gazteak eta pentsiodunak) konpainien eskuetan utziko ditu.

Historikoki, biztanlerik ahulenek jasan izan dituzte bizitza zapaltzen duen sistema predatzaile honen krisien ondorioz okerrenak. Erabat babesik gabe geratuko dira oraingoan ere, COVIDen egungo egoeran, oligopolio energetiko handiaren aurrean. Bizimodu duina izateko eskubidea urratzea dakar horrek, hots, ura, elektrizitatea edo etxeetan tenperatura egokia izatea bezain oinarritzkoak diren hornidurak eskuratu ahal izatekoa.

Manifestu hau sinatu dugun erakunde eta mugimendu sozialek neurriok berehala zuzentzea eskatzen diogu Pedro Sánchezen gobernuari eta lehenbailehen onar dezala etxeetan mozketen debekua epe mugagabez luzatzea, harik eta Espainiako legerian, pobrezia energetikoaren auzian, zuhurtziaren printzipioa aplikatu arte. Izan ere, ez dugu nahikotzat jotzen 30/2020 Errege Lege Dekretu berriak ezartzen duen kontsumitzaile ahulen kategorizazio berria.

Eskaera horiei erantzuten ez bazaie, oraingoan ere, administrazio publikoek ez lukete hartuko Estatu osoan etxeetan horniduren etenak jasan ditzaketen milaka familia kalteberen ardura. Konfinamenduan diru-sarrerek behera egin duten bitartean, fakturek gora egin dutela ikusi dute askok (familiek denbora gehiago igaro dute etxean, eta gaixoak zaintzeko edo artatzeko lanek ere energia kontsumo handiagoa behar izan dute). Hartara, familia askok ezin izan diete ordainketei aurre egin.

Dirudienez, mozketen debekua bertan behera uzteak horniduren merkaturatzaileak baino ez ditu babesten. Haien esanetan, faktura ez ordainduei aurre egin behar diete, "asimilatu egin behar dituzte", eta hori arazo handia da, ezin diotelako sistema elektrikoaren gastuak ordaintzeari utzi. Baieztapen faltsuak, benetan, konpainiak erabat babesten dituen tarifa-sistema sortu dutelako: garraioagatik, banaketagatik, neurketa-akatsengatik eta iruzurrengatik gertatzen diren energia-galerak estaltzeko autobabeserako formula. Galera horiek, batez beste, ekoizten den energiaren % 15 dira, eta erabiltzaile guztien artean banatzen dira: ehuneko jakin bat erabiltzaileko, dagokion tarifaren arabera. "Galeren ziozko aseguru" dirudi, kontsumitzaileek ordaindua. CNMC-ren arabera, iruzurrak gora egin du modalitate guztietan, eta urtean 150 milioi euro inguruko kostua du kontsumitzaileentzat, baina iruzur hori enpresetatik eta kontsumitzaile handietatik dator, nagusiki, eta askoz neurri txikiagoan etxebizitzetatik (% 1, gutxi gorabehera). Gainera, etxe horietako asko hornidura erregularizatzen saiatu dira, fakturak ordaindu nahi dituztelako, baina konpainia hornitzaile handien ezetza jaso dute.

Horniduren etenak debekatzea neurri minimoa da, eta onartezina da ez luzatzea. Jatorriz, 8/2020 Errege Lege Dekretuan jaso zen, eta babesa irailaren 30era arte luzatzea erabaki zen uztailean. Harrezkero, babesa ez da berritu. Ministroen Kontseiluak bonu sozial elektrikoaren estaldura hedatu eta kasu gehiago sartzeko asmoa izan arren, hainbatetan adierazi den bezala, bonu sozialak ez die egiazko irtenbiderik eskaintzen pobrezia energetikoa pairatzen duten pertsoneri. Izan ere, horietako askok fakturei aurre egin ezinik jarraitzen dute, dagozkien deskontuak izan arren. Gainera, ez ditu gasaren eta uraren fakturak barne hartzen, eta horrek familia horien babesgabetasun maila handitzen du. Alde horretatik, bonu sozial termikoaren figura sartu zen arren, errealitatean urteko zuzkidura bakarra da eta oso txikia (25 eta 123,94 € artekoa), aurrekontu-erabilgarritasunaren mende dago, eta pertsona askok ezin izan dute gaur egun eskuratu, ezarritako izapideak bete arren.

Duela ia urte eta erdi, Trantsizio Energetikorako Ministerioak Energia Pobreziaren aurkako Estrategia Nazionala (2019-2024) aurkeztu zuen. Estrategia horren arabera, zuhertasun-printzipioa zen bultzatu beharreko neurri nagusietako bat. Funtsean, edozein hornidura moztu ezina ezartzen zien konpainiei, harik eta familia kaltebera ez dela ziurtasunez jakin arte. Horretarako, gizarte-zerbitzu eskudunekin kontsultatu behar dute zein den familiaren egoera ekonomikoa.

Erakunde sinatzaileok zera eskatzen dugu: pobrezia energetikoaren auzian Espainiako legerian zuhertasun-printzipioa modu eraginkorrean ezarri arte, etxean hornidura-etenak egiteko debekua epe mugagabez luza dadila, are gehiago mundu mailako pandemia baten erdian eta krisi sozial eta ekonomiko handi baten atarian gaudenean.

Inor atzean ez uzteak esan nahi du pandemia betean dauden pertsona eta familia guztiei hornidura bermatzea. Ez dago etxebizitza duinik hornidurarik gabe. Ekintzak eta eskubideak eskatzen ditugu, ez hitz hutsalak.

**ERAKUNDE SINATZAILEAK:**

|  |
|--|
| Activat+45   |
| AeioLuz Cooperativa                                      |
| Afirmativa   |
| Aigua és Vida  |
| Alianza de Mareas y Mov. Sociales                        |
| Amigos de la Tierra                                      |
| APE  |
| Área de Acción Social de la Institución Teresiana España |
| Asamblea Agua Pública 10% Región Murciana                |
| Asamblea Feminista de Madrid                             |
| Asoc Víctimas de la Justicia Jurisdiccional              |
| Asociación Cultivarte Occidente                          |
| Asociación de Bipolares de Asturias                      |
| Asociación de Cultura Popular Alborada (Gallur)          |
| Asociación de Mujeres Campesinas de Asturias             |
| Asociación de pensionistas de Gijón                      |
| Asociación Ecoserveis                                    |
| Asociación Española de Educación Ambiental               |
| Asociacion Vecinal Fuente de la Reja de Pegalajar        |
| Associació Cultural Nou Barris Taller d' Idees           |
| Asturies Feminista 8M                                    |
| Asturies pol Clima                                       |
| Ateneo Obrero de Gijón                                   |
| Ateneu del Raval   |
| ATTAC  |
| Auzolanean Tolosa  |
| Balears Diversa  |
| Biziz Bizi   |

|   |
|---|
| Campanya per una Justícia Fiscal - CV                 |
| Casa de Cultura y Participación Ciudadana de Chamberí |
| CCOO  |
| CECU  |
| CEDSALA   |

|  |
|--|
| CGT  |
| CIDES  |
| Colectivo Parad@s Terrassa                                       |
| Comisión Promotora Renta Garantizada de Ciudadanía               |
| Coordinadora Bolivia unida contra el golpe de Estado             |
| Coordinadora de Asambleas de trabajadores/as en paro de Cataluña |
| Coordinadora de ONGD del Principado de Asturias                  |
| Corriente Sindical d'Izquierda (CSI)                             |
| COSPA Pensionistas Avilés  |
| CuervoZine   |
| Dones d'Aigua de Terrassa  |
| DonesCreients  |
| Droit à l'énergie SOS FUTUR                                      |
| Ecologistas en Acción  |
| Ecologistas en Acción de la Comunidad de Madrid                  |
| Ecologistas en Acción La Rioja                                   |
| Ecoloxistes n'Aición d'Asturies                                  |
| Ecooo Revolución Solar   |
| Ekologistak Martxan Bizkaia                                      |
| El Atelier   |
| EnAct  |
| Entrepueblos/Entrepobles/Entrepobos/Herriarte                    |
| Erletxe. Oficina de Información y Agitación Social de Irun       |
| Euskal Gune Ekosozialista - Espacio Ecosocialista Vasco          |

|  |
|--|
| Facua  |
| FAVB (Federació d'Associacions Veïnals de Barcelona)   |
| Federación de Asociaciones de Vecinos de Oviedo (FAVO) |
| Federación de Vecinos de Gijón. FAV                    |
| Feministas por el Cambio Social                        |
| Feministas por el Clima                                |
| FETE. Federación Élite Taxi España                     |
| FRAVM  |
| Fridays for Future Madrid                              |
| Fundación Ecología y Desarrollo                        |
| Green Cross España                                     |
| Greenpeace   |
| Iaiosflautasmorvedre/ Jóvenes Pensionista C.V          |

|  |
|--|
| Icaria editorial   |
| Intersindical Región Murciana                              |
| Jóvenes Pensionistas                                       |
| Madres por el Clima  |
| Manifiesto por el Socialismo                               |
| Marea Pensionista (COESPE)                                 |
| Moceda pol Clima / Fridays For Future Asturias             |
| Moviment per l'Aigua Pública i Democràtica a l'AMB (MAPiD) |
| Mugarik Gabe   |
| MuniMadrid Diversidad Funcional                            |
| No Más Blocs (l'Hospitalet de Llobregat)                   |
| Observatori del Deute en la Globalització - ODG            |
| ODS-Coia (Oficina Dereitos Sociais - Coia)                 |
| Pachakuti  |
| Pacientes LMC  |
| PAH  |

|  |
|--|
| PAH Granollers   |
| Pah Oviedo   |
| Pensionistas de Móstoles   |
| Pensionistas Siero   |
| Pensionistas XLA DIGNIDAD SOCIAL                                     |
| Pertsonala   |
| Plataforma Antitérmica La Pereda                                     |
| Plataforma Asturiana Contra la Contaminación Electromagnética/PACCEM |
| Plataforma Auxiliares de Ayuda a Domicilio Asturias                  |
| Plataforma Cantabria por lo Público                                  |
| Plataforma Ciudadana Zaragoza sin Fractura                           |
| Plataforma Contra la Contaminación de Xixón                          |
| Plataforma contra la privatización del Canal de Isabel II (PCPCYII)  |
| Plataforma de Pensionistas de Córdoba                                |
| Plataforma de Pensionistas de Dos Hermanas                           |
| Plataforma en defensa de pensiones públicas Estella                  |
| Plataforma Pensionistas Chamberí                                     |
| Plataforma por la Salud y la Sanidad Pública Asturias                |
| Plataforma por un Nuevo Modelo Energético                            |
| Plataforma por un Nuevo Modelo Energético - Nodo Cantabria           |
| Plataforma Ur Publikoa de Bizkaia                                    |
| Plataforma Vallecana XLA DIGNIDAD SOCIAL                             |
| Platoniq, Creatividad y Democracia                                   |
| Pobresa Zero Comunitat Valenciana                                    |
| Red Agua Pública (RAP)   |
| Red de Agua Pública de Aragón  |
| Red de Cuidados de Chamberí  |
| Red de Mujeres por una Transición Energética Ecofeminista            |
| Red Ecofeminista   |

|  |
|--|
| Right to Energy Coalition                              |
| Salvemos ei Ega-Ega Bizirik                            |
| Sindicat co.bas comissions de base                     |
| Sindicat de Llogateres                                 |
| Sindicato de Inquilinas e Inquilinos de Madrid         |
| Sociedad Cultural Gijonesa                             |
| Solabria Cooperativa                                   |
| Somos Tribu  |
| STEI Intersindical                                     |
| STEILAS  |
| StopDesahucios Bidasoa                                 |
| Taula d'entitats del Tercer Sector Social de Catalunya |
| Taula de l'aigua de Terrassa                           |
| Tertulia Cultural El Garrapiellu                       |
| TRADENER   |
| Unión General de Trabajadores                          |
| UPLA-LA UNIÓN  |
| URBIZI   |
| USO  |
| Visión Trans   |
| Xarxa per la sobirania energètica                      |
| Xarxa Socialisme 21                                    |
| XR Barcelona Rebel·lió per la Justícia Global          |
| Yayoflautas Madrid                                     |
| Zambra Málaga  |